

KANALAK

Gure produktua saltzeko kanal nagusia, online izango da. Webgune bat sortuko dugu, izan ere gaur egungo teknologiek erosketa modu hau oso eroso egiten dute bezeroarentzat; are gehiago aulkiaren pertsonalizazioan. Hala ere, hainbat denda fisikorekin kontaktatuko dugu gure produktua bertan salgai egoteko, eta bezeroren batek aldaketarik egin nahi badu, aukera izango du gurekin kontaktuan jartzeko eta nahi duen eran pertsonalizatzeko gurpildun aulkia. Kontaktuan jartzeko telefono zenbaki bat denda fisikoen ordutegi berarekin eta e-mail bidezko kontaktua ere erabilgarri egongo da.



Denda nagusia online denez, etxez etxeko salmenta azkarra eta merkea izaten saiatuko gara, Correos enpresarekin kontaktatuz, edo nahiago badute bilketa puntu bat ezartzeko aukera eskainiko dugu.